

Buletineko gaiak:

- | | |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. <i>Ihoteak: ikastolan, ikasleentzat</i>2. <i>Inauteriak: jantokiko oharra</i>3. <i>Tanta elkartasun txartelak</i> | <ul style="list-style-type: none">• <i>Eskolaz kanpoko ekintzen oharrak</i>• <i>Apartekoak</i> |
|--|---|

Berri orokorrak

1. Ihoteak: ikastolan eta ikasleentzat bakarrik

Aurten ere, bizi dugun ezohiko egoera dela eta, Ihoteak ezberdin ospatuko ditugu: ikastolan bertan egingo ditugu Oiartzungo inauteri festari dagozkion ekintzak. **Kontuan izan ikasleentzat bakarrik izango direla, burbuilaka egingo dituztela, eta gurasoak ez zaudetela gonbidatuta.**

Era berean, gogoratu nahi dizuegu **otsailaren 21 astelehena, jai eguna** dela.

2. Otsailak 25, Inauteriak: jantokiko oharra

Inauterietan ospakizun berezirik egingo ez badugu ere, ezinbestekoa zaigu jantokira etorriko diren ikasle kopurua aurrez jakitea. Beraz:

- **JANTOKIAN** aldaketaren bat (alta, baja) egin behar baduzue **otsailaren 22a**, asteartea, izango da azken eguna, idazkaritzako ordutegian. **Horretarako hurrengo inprimakia bete behar duzue: <https://forms.gle/T9DKCw1dKtcjQE9e6>**
- Denboraz kanpo adierazten dituzuen bajak kobratu egingo ditugu.

Mesedez, arreta berezia eskatzen dizuegu gai honekin, jantokiko zerbitzuaren antolaketarako ezinbestekoa baitzaigu ahalik eta informazio zuzenena edukitzea.

DBHko ikasleak 10:00etatik 13:00etara etorriko dira egun horretan, baina ohiko ordutegian bazkalduko dute. Bitarte horretan zaintza zerbitzua izango dute.

Gogoratu, era berean, **otsailaren 28a eta martxoaren 1a jai egunak** direla.



3. Tanta elkartasun txartelak

TANTA egitasmoa ikastolen jaien ekimenez sortu genuen. Jaiok finantzatzeko, urtean zehar diru sarrerak lortzeko bideak irekitzen ditugu: arropa salmenta, txosnak, tonbola, sarrerako kutxak, kultur eta kirol ikuskizunak... Baliabide horietako bat zozketa izan da. Jai bakoitzak bere zozketa antolatu izan du: dirua, auto bat, bidaia bat... gauza desberdinak zozkatzen genituen. Helburua bera izanik --jaien autofinantzazioa--, bost zozketa horiek egin beharrean, **ikastolen jaiak elkartasun txartelak egitea erabaki genuen, eta TANTA sortu.**

Txartel bakoitzak 5€ balio du, eta saria **60.000€koa da**. Laguntzeko erabakia hartua du gure ikastolako Kontseilu Errektoreak eta horretarako ikastolako familiei eta langileei **BI TXARTEL** banatuko dizkizuegu martxoan (martxoko erreiboan kobratuko ditugu). Txartelak lortzeko aukera hori herritar orori ere eskaintzen diogu. Prozedura ondorengoak izango da:

- Ikastolak, familia eta langile guztientzat bi txartel, gutxienez, eskatuko dizkie antolatzaileei.
- Familiaren batek edo langileren batek, txartela EZ BADUZUE EROSI NAHI, jarraian duzuen inprimakia bete beharko duzue, beranduenez otsailaren 17ra arte, osteguna: <https://forms.gle/zS9ysg8fmxkXw3LJA>
- Norbaitek txartel bat baino gehiago nahiko balu, familian, lagunartean... saltzeko, bete ezazue inprimakia: <https://forms.gle/AZqnmfnLD2d1zDdYA>. Epea otsailaren 17an amaituko da.

Eskolaz kanpoko ekintzen oharak

1. Ihoteak, Inauteriak eta eskolaz kanpoko ekintzak

Ihoteak eta Inauteri jaiak direla eta, eskolaz kanpoko ekintzetako abisuak doaz jarraian:

- **Otsailaren 18an**, eskolaz kanpoko ekintzak normaltasunez izango dira.
- **Otsailaren 19an, ez da** Eskola Kiroleko **jardunaldirik izango.**
- **Otsailaren 25ean**, eskolaz kanpoko ekintzak normaltasunez izango dira.
- **Otsailaren 26ean, ez da** Eskola Kiroleko **jardunaldirik izango.**

Apartekoak

1. Ihoteetako dantzak ikasteko/entseatzeko aukera

Ihoteak hurbil ditugunez, Ihoteetako dantzak ikasteko/gogoratzeko aukera izango da **bihar larunbata, otsailak 12**, Abaraxkaren eta Soinuenearen eskutik. **16:30ean jarri dute hitzordua Soinuenean**. Animatu!

2. Haurren irakurle taldea, Manuel Lekuona Udal Bibliotekan

Herri literaturzalea da Oiartzun, zalantzarik gabe. Idazle aldetik oparoa, baina baita irakurle aldetik ere; helduen irakurle taldeak, esaterako, ibilbide luzea du herrian. Orain, 2022ari begira, pauso bat gehiago eman eta **HAURREN IRAKURLE TALDEA martxan jarri nahi du Manuel Lekuona Udal Bibliotekak, haurrek ere elkartu eta zuen zaletasuna partekatzeko aukera izan dezazuen**.

Xabi Salaberria Gonzalez 1545 argitaletxeko kideak gidatuta, hilabete behin elkartuko da irakurle taldea, bibliotekako ganbaran. Hasieran, **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin osatuko dute taldea, baina aurrerago eskaintza beste adin batzuetara ere zabaltzeko ahal izatea aurreikusten dute**.

Beraz, irakurtzea maite baduzu eta lagunekin zaletasun hori partekatu nahi baduzu, hauxe duzu aukera!

- **ADINA:** LH5 eta 6.
- **LEKUA:** Manuel Lekuona Udal Bibliotekako ganbara.
- **EGUNA:** hilabeteko lehenengo ASTELEHENA (hasiera martxoaren 7an).
- **ORDUA:** 18:30etik 19:30era.
- **IZENA EMATEKO:** bibliotekan, otsailaren 24a baino lehen (atxikita duzuen orria beteta eraman).